

Euroguneari inflazioa eta Ukrainako gerra nabaritu zaizkio


Ekainean, Euroguneko manufakturen PMI indizeak beherakada handia izan zuen eta 51,9 puntutan kokatu zen, maiatzeko balioa baino ia hiru puntu beherago. Halaber, azken hamasei hilabeteetako indizerik apalena da. Ukrainan gerra hasi zenetik, adierazle horrek ondo eutsi zion sortutako ziurgabetasunari, eta ekonomiak oso tonu hedakorra zuen, baina ekainean nolabaiteko ahultasuna erakutsi du.

Adierazlearen bi osagaietatik, jaitsiera handiena zerbitzuetan gertatu da, maiatzaren 56,1etik ekainaren 52,8ra igaro baitira, nahiz eta balio horrek oraindik ere dinamismo moderatua erakusten du. Apirileko eta maiatzeko hilabete bikainen ondoren, turismoak eta aisialdiak moteldu egin direla erakutsi dute, bizitzaren kostua gero eta gehiago garestitu delako eta finantza baldintzak gogortu egin direlako.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2022KO EKAINA


51,9




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Alemania da egoerak gehien kaltetu duen herrialdeetako bat. Ekainean, adierazlea 51,3ra jaitsi zen, mailarik apalenera sei hilabeteen, 52,4 zerbitzuak 52,4ra jaitsi zirelako eta manufakturak jada hazten ez direlako (49,0). Frantziaren egoera antzekoa da. Herrialde horretan, indize konposatua 52,8ra jaitsi da, eta zerbitzuak oraindik ere indartsuak (54,4) egon arren, manufakturak ahulduta daude (45,7). Eurogunetik kanpo, AEBetan (51,2) aipatutako herrialdeetako bilakaera bera errepikatzen da. Aitzitik, Japoniak hobekuntza txiki bat lortu du eta 53,2 puntura igotzen da bere adierazlea, bizkortzeko prozesu leun batean.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit